



**OIARTZUN UDALERRIAREN "PIKOKARATE" IZENeko 2.063.1 ZENBAKIA DUEN
HERRI ONURAKO MENDIKO 105 ETA 113 UNADETAN, SAROBELARRE ALDEAN,
EGUR USTIAKETA ERABATEKO MOZKETA BIDEZ EGITEKO BALDINTZA
TEKNIKOEN ORRIA.**

1. Ustiaketaren kokapena:

Unadak: 105 eta 113

Azalera: 22,39 ha.

Zuhaitz mota: *Pinus radiata*

2. Ustiaketaren deskribapena

BENETAN DAGOENA

Espeziea	Oin kopurua
Pinus radiata (Radiata pinua)	4.859

ESLEIPENDUNAREN ZORIRA

6.736,20 m³

Aipatutako egur bolumenak, errealean, azalarekin eta puntarik mehenean 7,5 zm-raino neurtuak dira.

3. Tasazioa

Enkantearen oinarrizko prezioa: 161.668,82 €

Prezio indizea: 202.086,03 €

%18aren BEZa barne

3.1 Produktua ordaintzeko merkataritza oinarria:

Esleipendunaren zoriaren arabera.

3.2- Egiteko epea:

***12 hilabetekoa esleitzen denetik**



4. Baldintza orokorrak.

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (75.08.21eko 200 zk. E.B.O.ko 24.04.1975 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (75.08.20ko 199zk. E.B.O.ko 06.05.1975 Ebazpena) xedatutakoak eteko dira.

5. Baldintza bereziak.

5.1. Tasak: 1.323,21 €

5.2. Egurra ateratzeko bideak: Egun mendian daudenak. Horretarako edozein bide konpondu, sendotu edo egin behar bada, Basozaintza eta Natura Ingurune Zerbitzuari eskatu beharko zaio eta hark baimena emanaz gero, errematatzaileak berak finantzatu du. Foru Aldundiko Basozaintza eta Natura Ingurune Zerbitzuak behin-betirako esleipena egiten den arte bakarrik bermatuko du aterabideen egoera, eta beti exigituko du erabiltzeko moduan egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen egoera, gutxienez, mendia entregatu zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Zerbitzu honek ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzukizun.

5.3. Egurra arrastaka eramaten duten makinak ezingo dira erabili mozketa egiten ari den tokian Basozaintza Zerbitzu honen baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzeak diren bideetan egin beharko dutelarik.

5.4. Lanak esleitu zaizkion egur enpresak Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena beharko du egurra bilatu bere eskumeneko zonetan edo ezarritako pisu mugak gaindituz garraiatu behar duenerako, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauak ezarritakoaren arabera.



6. Segurtasuna eta osasuna

Kontratatistak laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, azaroaren 8ko 31/1.995 Legea, maiatzaren 30eko 773/1.997 Errege-Dekretua eta uztailaren 18ko 1.215/1.997 Errege Dekretua, lan-istripuari dagokion guztia beraren eta ez beste inoren erantzukizuna izango delarik. Kontratugile den administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratatistak ez baditu betebeharrak horiek betetzen.

7. Bestelako Arauak.

7.1. Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.

7.2. Lanak burutzerakoan enpresa esleipendunaren eta Basozaintza Zerbitzuaren artean izan ditzaketen iritzi desberdinetan, azken hitza Basozaintza Zerbitzuak izango du.

7.3. Sarobelarre eremua babes arkeologikoa du: Urkullu Txiki Egia. Erabateko mozketak egiteko, txosten arkeologikoaren arabera, mairu baratza babesteko 5 metroko babes perimetro bat ezarri beharko da. Mugatze lan hau, beti ere, kontrol arkeologikoaren ikuskaritza eduki beharko du.

7.4 Ahal den neurrian gurdibidea eta harriz egindako harresiak babestuko dira.

7.5. Bai Administrazioaren aurrean bai partikularren aurrean esleipendunak bere gain hartuko ditu lanaren ondorioz gerta litezkeen kalteak, batipat instalazio elektrikoei eta ubideen adarrei edo hirugarrengoei eta ustiapeneko langileei eginikoak.

7.6. Basolanek irauten duten bitartean herrialde historikoan orri honetan azaltzen ez diren eginbeharrak sortuko balira, basosuteak, euriteek kaltetutako bideak egokitu beharra, landaketa berrietatik kontrolik gabeko ganadua ateratzea, eta horrelakoetan, esleipendunak Administrazioaren esku jarri beharko lituzke aipatutako ekintza horietarako beharrezko baliabideak, beti ere duen ahalmenaren arabera eta Administrazioak eskatzen dion unean.



7.7 Basoaren osasunaren ingurukoak. Ustiapena egin behar den eremua *Fusarium circinatum* gaitza duen eremu barruan dagoenez Eusko Jaurlaritzak 76/2007 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, *Fusarium Circinatum* Niremberg et O'donnell onddoak kaltetutakozonetatik datozen basoko produktuak bildu, garraiatu eta tratatzeko arauak ezartzen dituen jarraituko du. Ustiatzen den egurra Eusko Jaurlaritzak baimenduta dituen serratagi edo eta egurra birrintzeko lekutara bakarrik eramango da. Beste baldintzen artean, enpresak instalazio egokiak izan beharko ditu: 30 minutuz 56°Ctako tratamendu termikoa egiteko edo material horretan onddoa suntsitu duela bermatzeko baliokidea den tratamendua. Ustialekutik ateratzen den lote bakoitza garraio-gida eduki beharko du. Gida hori Mendiak eta Habitatak Zerbitzuak helaraziko dio esleipendunari.


Donostia 2010eko urriaren 29a

MENDIAK ETA HABITATAK
KUDEATZEKO ZERBITZUBURUA

Fdo: Ismael Mondragon

BASOZAINZAKO 3. ATALEKO
BURUA

Fdo.: Inma Lizaso



Elementu arkeologikoak

Eremu megalitikoak

2.063.1 PIKOKARATE